

BERASTEGI

Lorentzo donearen egun handia gaur

Berastegiarrek ermitara hurbilduko dira goizean, bertan izango baita meza. Gero, festa giroa herrian jarraituko du

10.08.13 - 00:07 - :: LABAIEN | BERASTEGI.

Gaur, Salontzo jaietako egun handiena ospatzen dute berastegiarrek, Lorentzo Donearen eguna hain zuzen.

Goizean goiz, txistulari eta soinu joleek goiz deia egingo dute herriko kaleetan barrena. 9:30etan ospatuko da meza mendi tontorrean dagoen basilizan. Ia ordu berean, Mountain bike igoera herrikoia egingo da baita ere ermitaraino. Hamaiketako goxoa ere eskeiniko du bertan Basurde Elkartek. 11:30etan, Meza Nagusia San Martin parrokiari, Perosiren obra kantatuarekin.

Eguerdiko 12:30etan, juvenilen mailako 4terdiko pilota partidua eta afizionatuen pilota-partidak.

Arratsaldeko 18:00etan, herri kirol jaialdia: aizkoran, Unai Otaño eta Jon Rekondo, Jexux Mari Mujika eta Iñaki Azurmendiren aurka. Tartearen, Joseba Esnaola berrobitarraren harri-jasotze erakustaldia.

Iluntzean, Herriko mutilen eskutik, San Joan dantzak eta helduen dantza soka. Eguna amaitzeko, gaueko 11etan Alurr dantza taldearen emanaldia eta Gugaz erromeri taldearen saioa.

Kuadrilen eguna atzo

Goiz partean, kuadrila bakoitzak tortila bana egiteko lanari ekin zioten. Behin egin eta gero, Felix Azpiroz, Arantxi Goñi eta Tere Apezetxearen lana izan zen, tortilla itxura politenekoa eta batez ere goxoen aukeratzea. Txekorixkoak taldearen tortilla izan zen saria eraman zuena. Bigarren saria Satardientzat izan zen eta hirugarren postuan Bagabiltzala taldea gelditu zen.

Arratsaldeko, kuadrilen arteko jokuak ere, tarte polita pasaraazi zieten bertaratutakoei, izan ere, ez baitzen umore punturik ere falta izan. Sagardo dastaketa eta hortik aurrerako ekintzetan ere partehartze polita izan zen eta eguraldiak ere bere aldetik jarri zuela esan behar.

TAGS RELACIONADOS

lorentzo, donearen, egun, handia, gaur

Publicidad

**Nuevo iPhone - 17€**

Compradores españoles consiguen hasta un 80% de descuento usando un sorprendente truco.

www.megabargains24.com

**Hotel 4* en la Playa**

Compara precios de hoteles entre más de 150 webs, encuentra tu hotel ideal y ahorra.

www.trivago.es

**¿Quieres ser veterinari@?**

Tu Grado de Veterinaria en un centro de prestigio. ¡Con Prácticas y Bolsa de Empleo!

www.uax.es/Inscripción_Abierta

**Concurso GP F1**

Burn y el equipo Lotus F1 Team te llevan a los Grandes Premios.

¡Consigue tu viaje!

www.burn.es/concursoGP



Para poder comentar debes estar [registrado](#)

Añadir comentario

Iniciar sesión con

[Regístrate](#)



Escribe aquí tu comentario.

La actualización en tiempo real está **habilitada**. (Pausar)

Mostrando 0 comentarios

Ordenar por los más recientes primero

[Suscríbete por e-mail](#) [RSS](#)